
Ekonomia Sozial eta Solidarioaren txertaketa EAEko eskualdeetako garapen-estrategietan: Ikuspegi orokor bat

Gaurkotasunak dakarren erronka eko-sozialei aurre egiteko, estrategia berritzaileak beharrezkoak dira erregioak, eskualdeak, udalerrriak etab. bezalako Estatz azpiko eremuetan aplikatzeko. Ekonomia Sozial eta Solidarioak erronka horiek gainditzeko duen potentzialtasuna aintzat hartuta, artikulu honen bitartez jakin nahi da nola eta noraino txertatu den Ekonomia Sozial eta Solidarioa EAEko eskualdeetako garapen-estrategietan. Beraz, euskal garapen agentziek Ekonomia Sozial eta Solidarioarekiko duten pertzepzioa, harremanak eta integratzeko modua aztertuz, egungo errealitatearen irudi fidela emango da, inplikaturako eragileen irakaspen, eztabaida eta gogoetetatik abiatuta.

Para hacer frente a los nuevos desafíos eco-sociales son necesarias estrategias innovadoras que puedan ser aplicadas en espacios sub-Estatales como regiones, comarcas, municipios etc. Partiendo del potencial que se observa en la Economía Social y Solidaria para contribuir a superar estos desafíos, mediante este artículo se pretende conocer cómo y hasta qué punto se ha introducido la Economía Social y Solidaria en las estrategias regionales de desarrollo en la CAV. Por lo que, analizando la percepción, las relaciones y la forma de integración de la Economía Social y Solidaria en el trabajo de las agencias de desarrollo local vascas, se ofrece una imagen fiel de la realidad actual a partir de los aprendizajes conjuntos, los debates y las reflexiones de los actores implicados.

In order to face the new eco-social challenges, there are necessary innovative strategies that could be applied in sub-State spaces such as regions, counties, municipalities, etc. Based on the potential observed in the Social and Solidarity Economy contribute to overcome these challenges, this article aims to analyse how and in what measure the Social and Solidarity Economy has been introduced into regional development strategies in the Basque Country. Therefore, by analysing the perception, the relationships and the form of integration of the Social and Solidarity Economy in the Basque local development agencies, an image of the current reality is offered from the learnings, the debates and the reflections of the actors involved.

Pablo Arrillaga Márquez
Enekoitz Etxezarreta Etxarri
Aitor Bengoetxea Alkorta

*Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU),
Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua (GEZKI)*

227

Aurkibidea

1. Sarrera eta gaiaren kokapena
2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta tokiko garapenaren arteko harremana
3. Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta tokiko garapena EAEn
4. Ikerketaren azalpen metodologikoa
5. Ikerketaren emaitzak
6. Ondorioak, erronkak eta agertoki desiragarriak

Erreferentzia bibliografikoak

Hitz gakoak: Ekonomia Sozial eta Solidarioa, tokiko garapena, eskualde-estrategia, garapen agentziak, politika publikoak.

Palabras clave: Economía Social y Solidaria, desarrollo local, estrategias regionales, agencias de desarrollo, políticas públicas.

Keywords: Social and Solidarity Economy, local development, regional strategies, development agencies, public politics.

JEL sailkapena: R58, J54

Sarrera data: 2022/10/11

Onartze-data: 2023/05/10

1. SARRERA ETA GAIAREN KOKAPENA

Paradoxikoa dirudien arren, globalizazioaren agertokian estatuz azpiko eremuek (erregioak, eskualdeak, udalak etab.) esparru ekonomikoan eragiteko duten gaitasuna handitu egin da (Brenner, 1999; 2004; Zurbano, 2005). Asko dira, zentzu honetan, lurraldeak garatzeko asmoz abiatu diren egitasmoak geografia osoan zehar. Alabaina, honek eskualdeen arteko norgehiagoka sustatu du nazioartean; eskualde irabazle eta galtzaileak sorraraziz (Benko eta Lipietz, 2000). Nazioarteko garapen desorekatu honi eta gaur egun zabaltzen ari den egiturazko krisiaren testuinguruak ezartzen dituen gizarte-erronka handiei aurre egiteko, eskualdeek estrategia berriak garatzeko emergentzia azaleratu dute, eta, alderdi ekonomikoez haratago, alderdi sozialak eta ingurumenarekin lotutakoak barneratzeko beharra ikusi dute (Pike *et al.*, 2017).

Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS aurrerantzean), eskualde-estrategia berri hauek artikulatzeko eta bideratzeko tresna izan daiteke. Hala erakusten du ere Europako Batzordeak zeinek 2021eko abenduan publikatutako *Pertsonentzat funtzionatuko duen ekonomia eraikitzea: Ekonomia Sozialerako ekintza-planean*¹, eskualde eta tokiko mailan ESSa sustatzearen inguruko garrantzia eta beharra azpimarratzen duen. Europako Batzordearentzako «Ekonomia Sozialaren negozio-ereduek balioa ematen diete tokiko ekonomia eta gizarteei, haien inklusibitatea, erresilientzia eta jasangarritasuna sustatzen baitituzte. Lurraldeetan oso errotuta daude, eta haien helburu nagusia kokatuta dauden lurraldeetako komunitateari zerbitzua ematea da, biztanleria, jarduera ekonomikoak eta tokiko diru-sarrerak mantenduz. Horrela, eskualdeentzat garrantzi berezia duten sektoreetan tokiko garapen ekonomikoa bultzatzen laguntzen dute (...).» Izan ere, Europako Batzordeak estrategikotzat jotzen du ESaren sustapena tokiko eta eskualde mailetan, batez ere, ESSak Agenda 2030k zehazten dituen Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) betetzen lagundu dezakeen heinean (Villalba *et al.*, 2020).

Estatu mailan, *Ekonomia Soizialeko estrategiak (2017-2021)*² ESSa lurraldean tokiko garapenerako funtsezko eragile gisa kontsideratzen du. Estrategia honen arabera erakunde lokal ezberdinak parte-hartu behar dute ESSaren sustapenean eta, besteren artean, tokiko mailan zerbitzu publiko zein sektore estrategikoen hornikuntzan ESSa txertatu.

Eta Eusko Jaurlaritzak, 2021eko abenduan argitaratutako *Gizarte Ekonomiaren sailarteko plan estrategikoan (2021-2024)*³, zuzenean erreferentzia egiten zaio ESSaren lurralde-dimentsioari bere azpi tituluan «lurraldean errotutako arlo kolektiboaren indarra» jaso dutelarik. Plan honetan, ESSaren «tokiko garapenarekiko konpromisoa» aitortzen zaio eta «tokiko eta eskualdeko garapenari laguntzen dion formula gisa» kontsideratzen da. Horregatik, besteren artean, «gizarte-ekonomiaren arloko ekintzailatza sustatzea» lan ildoaren barnean «lurralde-sustapen planifikaturako laguntzak, gizarte-ekonomiako enpresa-proiektu berriak eskualdeka garatzeko, tokiko garapenari lagunduz» diru-laguntza bultzatzen da besteak beste.

Bestalde, EAeko tokiko garapena bideratzeko eraiki den egitura instituzional esanguratsuena, ia eskualde guztietara zabaltzen diren tokiko garapenerako agentziak dira. Hauek, 2019. urtean EAeko biztanleriaren %92ra heltzen ziren 34 garapen agentzia dira (Garapen, 2020). Euren lan ildo nagusien artean, alde batetik, eskualdeetako garapen estrategien gobernantza artikulatzea eta tokiko eragileen inplikazioa bilatzea (Estensoro eta Zurbano, 2010), eta bestetik, enplegua sortzera,

¹ Hemen eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52021DC0778&qid=1644937802979>

² Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-3857

³ Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/plan_eco_social_2022/eu_def/ad-juntos/E5213-GIZARTE-EKONOMIA-INFF_GESPE-apirilak-26.pdf

ekin-tzailtza sustatzera eta enpresentzako zerbitzuak eskaintzera bideratutako ekimenak bideratzea leudeke (Gainza eta Unceta, 2011).

Artikulu honen bitartez, EAEko eskualdeetako garapen estrategietan ESSa zein punturaino eta nola txertatzen den aztertu nahi da. Hortaz, EAEko garapen agenziak ardatz hartuta, gaiaren inguruko azterketa orokor bat burutu da. Izan ere, maila ezberdinetako agintaritzek ESSa tokiko esparruetan sustatzeko idatzi dituzten planak eta direktibak ugariak diren arren, eta lehenengo begiratu batean, ESSaren eta tokiko garapenaren arteko harremana estua izan beharko litzatekeela kontsideratu daitekeen arren, EAEko egoera ez dela horren positiboa sumatu daiteke. Hala ere, EAEko egoera analizatzen eta azaltzen duten azterketen gabezia dela eta, ezin da sakonean ezagutu ESSak EAEko eskualde-estrategietan zein punturaino txertaturik dagoen. Eta beraz, diagnostiko hori egin gabe ezinezkoa da etorkizunerako lanildoak planteatu. Horregatik, artikulu honek, hutsune horri erantzun nahi dio eta azken urteetan EAEko garapen agentziek euren eskualde-estrategietan ESSa txertatzeko asmoz burututako esperientzien analisitik, eztabaidetatik eta egindako go-goetetatik edaten du, gaur egungo errealitatearen argazki fidagarri bat eskaintzeko.

Jan horretarako, jarraitzen duten lerroetan, lehenik ESSaren eta tokiko garapenaren arteko hurbilketa landu duten ikerketen berrikusketa burutuko da. Jarraian, EAEko ESSaren zein tokiko garapenaren testuingurua aztertu da. Eta ondoren, ikerketa honetarako jarraitu den metodologia azaldu eta lortutako emaitzak aurkeztu dira. Bukatzeko, ondorioak, erronkak eta etorkizunerako agertoki desiragarriak proposatu dira.

2. EKONOMIA SOZIALA ETA TOKIKO GARAPENAREN ARTEKO HARREMANA

Ikuspegi teoriko batetik, tokiko garapenaren zein ESSaren corpusen zati handi batek soziologia ekonomikotik edaten du. Izan ere, biek partekatzen dute ekonomia ez dela gizartearekiko isolatua dagoen esfera baten ideia, baizik eta harreman sozialek eta eraikitako instituzionalitateak eragina dutela jarduera ekonomikoan. Hau da, ekonomia harreman sozial eta instituzionaletan sustraitutako prozesua dela abiapuntutzat hartzen dute, testuinguru zehatz eta ibilbide historiko batekiko baldintzatura dagoena (Polanyi, 1944; Amin, 1998; Laville, 2009; Gainza, 2008).

Era berean, oinarrizko elementu komunak aurkitu ditzakegu. Izan ere, biek partekatzen duten elementu adierazgarrienetako bat da biek behetik gorako ikuspegi batetik abiatzen direla. Hau da, ekimen kolektiboaren bitartez, nolabaiteko autonomiaz eta ekimena aurrera eraman dutenen edo ekimenaren onuradunen borondatez sortu direla. Gainera, behetik abiatzen dira, gizarteak parte-hartzen duen prozesuak direlako eta guztientzat onuragarriak diren hainbat helburu partekatzen dituztelako, hala nola bizi-kalitatea hobetzea, ongizatea areagotzea, beharrak asetzea edo pertsonak ahalduntzea.

Hala ere, tokiko garapeneko korrante nagusiek ez diote, orokorrean, ESSari espaziorik eskaini euren analisisetan. Horrela, Vázquez-Barquero (1988; 1999), Alburquerque (2003; 2004) eta Pike *et al.* (2006; 2017) bezalako erreferentziazko autoreen lanetan ez da ESSarekiko erreferentzia sendorik ageri, nahiz eta jarraian ikusiko dugun moduan, hauen arteko harremana handia den.

Bi munduen arteko hurbilketa burutu duten lanen inguruko literatura berrikusten badugu, gutxienez 4 ikuspegi daudela identifikatu ditzakegu. Alde batetik, tokiko garapen ekonomikoaren eta ESSaren (batez ere kooperatibismoa) arteko harremanak aztertzen dituztenak daude (Mozas eta Bernal, 2006; Gómez eta Fernández, 2008...). Bigarrenik, landako garapenaren eta ESSaren arteko harremanak aztertu dituztenak (García, 1997; Juste, Gómez eta Fernández, 2001...). Hirugarrenik ESSa (batez ere elkartegintza eta gizarte-ekimeneko erakundeak) garapen komunitarioarekin lotzen dutenak (Favreau, 1997; Bouchard eta Levesque, 2010; Klein *et al.*, 2012...). Eta, azkenik, tokiko garapenaren ikuspegi eraldatzaileago batetik abiatzen direnak eta ESSa eta tokiko giza garapenarekin, gaitasunen indibidual eta kolektiboen garapenarekin, komunitateen ahalduzuekin, post-garapenarekin edo tokiko garapen eraldatzailearekin lotzen duten egileak aurkituko genituzke (Coraggio, 2004; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014; Zulaika, 2017; Villalba eta Pérez de Mendiguren, 2019; Arrillaga, 2021a).

Bakoitzak bere ikuspegitik baina guztiek bat datoz ESSak onura garrantzitsuak ekar diezazkiokeela tokiko garapenari. Lehenengo bi ikuspegietatik ESSak enplegu egonkorra sortzeko, jarduera ekonomikoa sortzeko eta berrikuntza teknologikoa bultzatzeko gaitasun handia duela uste da (Mozas eta Bernal, 2006; Gómez eta Fernández, 2008). Izan ere, ESSko erakundeak intentsiboagoak dira harreman sozialei dagokienez, eta, beraz, tokiko garapen ekonomikorako, tokiko ekoizpenaren antolaketarako, enpresa-sareak sortzeko, inter-kooperatzeko, eskualdeko zientzia- eta berrikuntza-sistematan txertatzeko, tokiko kultura ekintzailerako eta abarretarako baldintza instituzional mesedegarriak sortzen dituen kapital soziala garatzen laguntzen du.

Gainera, ESSko erakundeak, definizioz, elementu endogenoak dira. Batetik, lurraldeko pertsona-talde bat elkartzen delako horiek sortzeko eta haien edo komunitatearen premiak asetzeko. Horregatik, lurraldeari eta haren errealitateari erabat lotuta sortzen dira, eta erraztasun handiagoa erakusten dute beren jarduera ekonomikoa tokiko beharretara egokitzeko. Eta, bestetik, tokiko balia bideak, inbertsioa eta gaitasunak aktibatuz sortzen direlako. Horregatik ohikoa da esatea ESSak errotze handiagoa erakusten duela lurraldean. Bertan sortzeaz gain, tokiko balioez eta kulturaz bustita egoteaz gain eta tokiko gizartearen aldeko konpromiso esplizitua erakustez gain, ESSko erakundeek jabetza ereduak formalki lotzen du erakundeak lurraldearekin, inbertitzaile kapitalistarekin ez dagoen heinean (Monzón, 2006) eta bazkideak lurraldean bizi eta harremanak dituzten pertsonak diren heinean (Mozas eta Bernal, 2006).

Landa eremuen testuinguru espezifikoan, ESSak biztanleria finkatzen edo balio sozial eta ekologiko handiko espazio eta baliabideen narriadura saihesten lagundu dezake (Tomás eta Monzón, 1998; Valiente, 2019). Gainera, ESSak ekoizpenean berrikuntzak transferitzea eta ongarririk, haziak, makineria, azpiegitura, energia eta abarren irisgarritasuna erraztu dezake, ekoizleak kolektiboki antolatzerakoan (García, 1997).

ESSa garapen komunitarioarekin lotzen dutenek, batez ere, ESSaren merkatukoak edo/eta diruzkoak ez diren esperientzietan eta parte-hartze ereduetan jartzen dute arreta. Kasu hauetan, ESren forma desberdinek komunitate baten arazo ekonomiko, sozial, politiko, kultural edo ingurumenekoei modu kolektiboan aurre egiteko antolaketa tresnak garatzen lagunduko luke (Favreau, 1997). Izan ere, ESSa antolaketa forma anitz eta ugarietan agertu daiteke, gizabanakoei eta eragile sozialei izaera ezberdinetako dinamika sozialetan parte-hartu dezaten lagunduz (gizarte zerbitzuen inguruan parte-hartzea ahalbidetzen duten kooperatibak, laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak, kontsumo eta erabiltzaileen kooperatibak, elkarteak edo taldeak, ekimen kulturalak, truke sareak, denbora bankuak, moneta sozialak etab.).

Azkenik, ESSaren eta tokiko giza garapenaren edo post-garapenaren arteko harremanak aztertzen dituztenek, pobretutako komunitateen gaitasun pertsonalak eta kolektiboak garatzeko orduan ESSak duen gaitasunean edo hegoaldeko ekonomietako herri-sektoreetan zentratzen dira nagusiki (Coraggio, 2004; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014; Villalba eta Pérez de Mendiguren, 2019).

Aurreko autoreen ekarpenak laburbilduz, ESSak tokiko garapenari sortzen dizkion onura aipatuena honako hauek dira:

- ESeko erakundeek izaeragatik lurraldean gehiago errotzen dira. Gainera, langileak, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak dira erakundearen jabeak, eta, beraz, lekualdatzeko edo itxiera selektiborako arriskua txikiagoa da. Era berean, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen du, eta, krisi-garaian, enpleguaren defentsa handiagoa erakusten du.
- Tokiko jarduera ekonomikoa sortzen du, ondasunak eta zerbitzuak sortzen ditu eta bere onura soziala errentagarritasunaren gainetik jartzen du. Horrela, enpresa kapitalistak errentagarritasun faltagatik baztertzen dituzten sektore eta lurraldeetara iristen da ESSa. Horregatik, jenderik gabeko edo deprimitutako lurraldeetan bizia sortzen du eta biztanleria finkatzen laguntzen du.
- Funtzionamendu demokratikoa duenez, errenta eta aberastasuna modu bizkoagoan banatzen ditu, kohesio sozial eta ekonomiko handiagoa sustatuz. Gainera, sortutako aberastasuna lurraldean mantentzea eragiten du, jabetza kapitalistako egiturekin gerta daitezkeen kapitalen ihesa saihestuz.
- Egonkortasun ekonomikoa sortzen du krisien aurrean, enpresa kapitalistek baino erresilientzia handiagoa erakusten baitu. Hainbat arrazoirengatik:

langileek enpresa propiotzat hartzen dutelako, lana irabazien gainera jar-
tzen dutelako, erakundeak elkarren artean kooperatzeko joera dutelako,
merkatu ekonomiatik, ez-merkatu ekonomiatik eta/edo ez-diruzko ekono-
miatik baliabideak hibridatu ditzaketelako etab.

- ESSko erakundeen izaeragatik, haien arteko elkarlana, sareak sortu edo proiektu partekatuak burutzen dituzte, eta, beraz, lurraldeko egitura insti-
tuzionalean hobeto txertatzeko joera du (enpresa-sareak, garapen-estrategia,
zientzia- eta berrikuntza-sistemak, heziketa-zentroak, unibertsitateak,
administrazio publikoa, gizarte zibila, etab.).
- Sortutako mozkinak lurraldearen garapen sozial, kultural edo komunitario-
ra bideratzen dira. Gainera, lotura handia du lurraldeko mugimendu sozia-
lekin eta haien aldarrikapenekin.
- Etengabeko formakuntza eta berrikuntza sustatzen ditu. Gainera, azken ho-
rren hedapena eta transferentzia errazten du.
- Garapen iraunkorrago baterako oinarriak ezartzen ditu.
- Lankidetzeta-harremanetan, elkarrekikotasunean eta elkarrekiko laguntzan
oinarritutako kapital soziala sortzen du. Gainera, parte-hartzea eta demo-
krazia ekonomikoa sustatzen ditu lurraldean.
- Izaera kapitalistako produkzio-, kontsumo-, banaketa-, finantzaketa- eta
etxebizitza-harremanak eraldatzen ditu, pertsonak prozesu ekonomikoaren
erdigunean jarriz. Horrela, lurraldeak eta haien egunerokotasuna ere eral-
datzen ditu, lurralde bizigarriago bihurtuz.

3. **EKONOMIA SOZIALA ETA TOKIKO GARAPENA EAEn**

Azken hamarkadetan, ESSak zein tokiko garapenak ibilbide esanguratsua jarrai-
tu dute EAEn, gaur egun diren errealitate egonkortuak osatu arte. Atal honetan,
gaur egungo egoerari eta bakoitzak eraiki duen egituraketari erreparatuko zaio.

3.1. **Ekonomia Sozial eta Solidarioa EAEn**

Euskal ESSari buruz hitz egitean Arrasateko talde kooperatiboa burura etortzen
zaigun lehenengo esperientzia bada ere, badira Euskal Herrian zehar beste experien-
tzia ugari honetatik apartekoak. Industrializazioari lotutako kooperatibismoari,
Arrasateko esperientziari, euskalgintza eta kulturagintzarekin lotutakoari edo ipar
Euskal Herrian emandakoari, 2008ko krisiaz geroztik «bosgarren olatu kooperati-
bo» bat (Irasuegi, 2019) gehitu behar zaio. Azken hau, oro har, tamaina txikiagoko
eta lan elkartuko kooperatibek osatzen dute, eta, kasu askotan, sektore estrategikoen
(elikadura, energia, gizarte-zerbitzuak, finantzak, teknologia etab.) gain eragiteko
asmoarekin sortutako enpresa berriek osatzen dute.

Eusko Jaurlaritzak (2022) argitaratutako *2020ko Euskal Gizarte Ekonomiaren Estatistika*-ren arabera, 2020. urtean kooperatiben eta lan sozietateen artean ia 3.500 establezimendu zituzten EAEn; 60.500 enplegu sortzen zituztenak⁴. Hots, enplegu guztiaren %6,5a hain zuzen ere. ESSko beste forma juridikoak gehitzen badizkiogu (jarduera ekonomikodun elkarteak, fundazioak, laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak etab.), establezimendu kopuru totala 5.000 baino gehiagora igotzen da eta enplegua 88.000ra hurbiltzen da. Datu historikoei begiratuz, joera positiboa antze-man daiteke, batez ere ESSa osatzen duten erakunde mota guztien datuak batera hartzen baditugu. Gainera, nahiko adierazgarria da Covid-19ak sortutako pande-miaren osteko desenpleguaren igoera gutxiago nabaritu dela ESSko enpleguan en-plegu orokorrean baino.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa zen ESSko enplegu gehien sortzen zue-na, baina Bizkaian kokatzen ziren ESSko enpresa gehienak. Izan ere, orokorrean, Gipuzkoako ESSak izaera industrialagoa dauka, eta beraz, enpresa handiagoak sor-tzeko joera du Bizkaiko zerbitzuen alorreko enpresekin alderatuta. Arabaren ka-suan, datu gehienak apalagoak dira; neurri batean, biztanleria kopuru txikiena duen lurralde historikoa den heinean, baina baita ere tradizio kooperatibo gutxiago da-goelako. Hurrengo taulan EAEko ESSaren datu esanguratsuenak jasotzen dira:

1. taula. EAEko EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN DATU OROKORRAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (2020. URTEA)


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
ESSko* enplegu kopurua	5.597	23.200	31.604
ESSko* enpleguaren pisu erlatiboa lurralde historiko bakoitzean	%3,9	%4,9	%10,2
ESSko* establezimenduen banaketa	%14,9	%44,6	%40,5
ESSak* sortzen duen balio erantsi gordinaren banaketa	%11,9	%34,1	%54

* Bakarrik kooperatibak eta lan sozietateak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzak (2022), egileek moldatuta.

⁴ Eusko Jaurlaritzak (2022) bereizten ditu alde batetik «Gizarte-ekonomiako forma klasikoak (GEFK)» non soilik kooperatibak eta lan sozietateak sartzen dituen, eta bestetik, «Gizarte-ekonomiako beste formak (GEBF)» non fundazioak, enplegu zentro bereziak, laneratze enpresak, onura publikoko elkarteak, eraldaketarako nekazaritza sozietateak, arrantzaleen kofradiak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak sartzen dituen. Hala ere, GEFK-en kasuan datu gehiago eskaintzen ditu, eta beraz, kasu horretan azterketa sakonagoa egitea ahalbidetzen du; batez ere lurralde historiko edo eskualdekako ana-lisia egin nahi bada.

Lirudia. EAEko EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN SARE EGITURAKETA



Iturria: egileek egina.

Eskualdeka, Arrasateko esperientzia kooperatiboaren eraginari esker, Debagoiena nagusitzen da beste eskualdeen gainetik, bai enplegu industrialari eta baita ere zerbitzuei dagokionez. Horrez gain, Goierri, Tolosaldea eta neurri txikiago batean, Bidasoa, Donostialdea, Urola kostea, Lea-Artibai, Busturialdea eta Uribe kostea dira ESSko enplegu industrial gehiena dutenak. Zerbitzuetan, Debagoienaz gain, Bilbo Handia, Urola Kosta, Donostialdea eta Bidasoa nagusitzen dira, atzetik Enkarterri, Arratia-Nerbioi eta Durangaldea jarraitzen dietelarik (OVES/GEEB, 2020).

Egituraketari dagokionez, ESSko erakundeak eta eragileak sartzeko ohitura izan ohi dute (García-Jané *et al.*, 2006). Horregatik, EAEn ere, ESSko enpresen sareen sare egituraketa bat aurkitu daiteke. ESSko familia bakoitzak (kooperatibak, lan-sozietateak, enplegu zentro bereziak, laneratze enpresak, ekonomia solidarioa, ekonomia sozial eraldatzailea eta Bizkaiko kooperatiba txikiak) sare ordezkagarriak sortu dituzte; hau da, familia bakoitzaren enpresen interesak defendatzen dituzten sareak sortu dituzte. Eta, aldi berean, sare hauetako gehienak Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea (EGES) deritzon beste sare batean saretuta daude. Aurreko irudian, sare hauek guztiak ikusi daitezke.

Irudian agertzen diren sareez gain⁵, talde kooperatiboak, merkatu sozialak, sare sektorialak (energia, elikadura...), hornitzaile, bezero, finantzatzaileekin edo herri mugimenduekin sortu daitezkeen sare informalak etab. ere ematen dira. Era berean, unibertsitatearekiko lotura zuzena dauka Euskal ESSak, EAEko hiru unibertsitateek baitute gaian espezializatutako ikerketa institutuak: Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (GEZKI), Mondragón Unibertsitateko Lanki eta MIK institutuak eta Deustuko Unibertsitateko ikerketa kooperatiboaren institutua, hain zuzen ere.

3.2. EAEko garapen agentziak

EAEko tokiko garapenerako eraiki den egitura instituzional esanguratsuen lurralde (eskualde edo udalerrien) ezberdinetan eragiten duten 34 garapen agentziek osatzen dute, hauek arduratzen baitira garapen prozesuak artikulatzeaz. Hala ere, ezberdintasun nabariak aurkitu daitezke agentzia batetik bestera. Izan ere, lurraldeen ibilbide historikoen, bertan garatu diren harreman sozioekonomikoen eta egitura instituzionalen eragin dute haien sorkuntza prozesuetan.

Egituraketari dagokionez aurkitu daitezkeen lehenengo desberdintasuna, garapen agentziaren eragin eremuaren inguruan ematen da. Garapen agentzia batzuk eskualde mailan eragiten duten bitartean, beste batzuk udal mailan eragiten baitute. Era berean, badaude ere, eskualdea izan gabe, udal gutxi batzuen arteko hitzarmenen bitartez sortutako garapen agentziak. Bigarren desberdintasun nagusia garapen agentzien izaera-

⁵ Irudiak sareen inguruko irudi orokorra eskaintzen du. Hala ere gerta daiteke erakunde bat bi sareetan egotea aldi berean; adibidez, REAS Euskadin zein Gizatean saretuta dagoen laneratze enpresa bat edo Konfekoopen eta Olatukoopen saretuta dagoen kooperatiba bat esaterako.

ren arabera ematen da. Oro har, eskualde mailan artikulatzen direnak erakunde berri bat sortu izan baitute, normalean, kapital publikoa duen sozietate anonimoaren formaren bitartez. Aldiz, udal mailan artikulatzen direnen artean, oso ohikoa da departamentu edo zerbitzu baten gisara integratzea udalaren egituraren barnean. Bi ezaugarri hauek, garrantzia izan dezakete garapen agentziaren eguneroko jardunean. Juridikoki kudeatu beharreko desberdintasunez gain, agentziaren independentziaren gain eragin dezakelako. Izan ere, udal mailako agentzietan, udalaren eguneroko jardunaren eta bertan nagusia den norabide politikoaren araberrako menpekotasun handiagoa somatu daiteke. Aldiz, eskualde mailan artikulatzen direnak, norabide estrategiko ezberdinak izan ditzaketen udalen mankomunitate baten ondorioa izan ohi dira, eta orokorrean, lan egiteko autonomia handiagoa daukate.


Egituraketaz gain, garapen agentzien jarduna baldintzatzen duen, eta beraz, agentziak desberdintzen dituen beste elementu espezifikoa bat, agentziaren sorkuntza garaiaren testuinguruak ezartzen du. Larrea-k (2003), Gainza-k (2008) eta Garmendia-k (2021) ikertzen dutenez, lau garai nabarmentzen dira zentzu honetan. Lehenengo garapen agentziak 80ko hamarkadaren amaieran eta 90koaren hasieran sortzen dira; batez ere Gipuzkoako eskualdeetan (Debabarrena, Urola Erdia, Urola Kosta, Donostia...), baina baita Bizkaiko udal batzuetan (Gernika, Barakaldo, Bilbo...) eta Gasteizen ere. Garaiko krisiak eta industria birmoldaketak sortutako enpleguaren igoeraz gain, sektore industrialen berregituraketa, botere politikoaren deszentralizazioa eta tokiko eragile ezberdinen borondatea izan ziren berrikuntza instituzional hauen bultzatzaile nagusienak. Hasiera batean, nagusiki, enpleguaren sustapenera bideratzen baziren ere, berehala haien eginkizunak zabaldu zituzten eta enplegu politiketatik tokiko ekonomiaren sustapen aktibora igaro ziren.

Bigarren garaia 90ko hamarkadan zehar ematen da. Orokorrean, garai honetan, garapen agentziarik gabeko gelditzen ziren Gipuzkoako eskualdetan sortu ziren (Bidasoa, Debagoiena, Goierri, Oarsoaldea, Urola Garaia, Tolosaldea...) eta Bizkaiko zein Arabako beste tokietan (Getxo, Amurrio, Añana...). Aitzindarien arrakasta ikusita, hasieratik tokiko plan estrategikoak burutu zituzten eskualde hauek (udal mailakoak ez hainbeste) eta agentziak erreplikatzera ekin zioten.

2000. urtetik aurrera, Bizkaiko garapen agentzia gehienak sortzen dira (Durangaldea, Uribe Kosta, Mungia, Txorierri, Bermeo...). Garai honetan sortutako agentzia Bizkaitarrak, «Behargintza» deritzonak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BBK-ren ekimenez goitik beherako ezarpen bat izan ziren eskualde eta, batez ere, udal batzuetan. Izan ere, ez ziren behetik hautemandako behar bati erantzuteko sortu, enplegu arloan eragiten zuten administrazio publikoaren beste beso bat bezala baizik.

Azkenik, badira 2008ko krisiaren ostean sortu diren beste garapen agentzia batzuk (Beterri-Buruntza, Enkarterri, Audio...), krisi honek sortu dituen behar sozioekonomiko berrien testuinguruan sortu direnak eta behetik gorako ikuspegia berreskuratu dutenak. Hurrengo irudian EAEko garapen agentzien mapa ikusi daiteke:

2. irudia. EAEko GARAPEN AGENTZIAK



Iturria: egileek egina.

Garapen agentzia hauek guztiak Garapen deritzon elkartean saretzen dira EAE mailan. Eta aldi berean, beste batzuen artean, Gipuzkoako zein Bizkaiko aldundiek bultzatzen dituzten «Etorkizuna Eraikiz» eta «Bizkaia Orekan» programetan parte hartzen dute, bi lurralde historiko hauen gobernantza ekonomikoan parte-hartuz. Horrez gain, Estatu eta Europa mailan abiatzen diren programetan ere parte-hartzen dute garapen agentziek (Garapen, 2020). Hau da, garapen agentziak lurraldeari eta bere gobernantza ekonomikoari lotuta dauden organismoak izateaz gain, eskala anitzeko gobernantza baten parte ere badira (Estensoro eta Zurbano, 2010).

4. IKERKETAREN AZALPEN METODOLOGIKOA

EAEko eskualdeetako garapen estrategietan ESSa zein punturaino eta nola txertatzen den aztertzeko, artikulua honetan hiru galdera nagusiei erantzungo diegu. Hurrengoak dira:

- Zein da EAEko garapen agentziek ESSarekiko duten pertzepzioa?
- Zenbateraino daude garatuta EAEko ESSko eragileen eta garapen agentzien arteko harremanak?
- Zein puntura arte barneratzen da ESSa EAEko garapen agentzien lurralde-estrategietan?

Horretarako, besteren artean, azkenaldian burutu ditugun bi ikerketen emaitzak gurutzatu ditugu. Alde batetik, 2020. urtean GEZKI institutuari EGES erakundetik eskaturiko lan batean oinarrituko gara. Lan honetan ESSa sustatzeko tokiko eta eskualde mailako herri-erakundeetatik aurrera eramandako praktika egokien datu bilketa eta dokumentazio lan oparo bat egin zen eta hautemandako praktika onak politika publikoen tipologia konkretu ezberdinetan kategorizatze saiakera burutu zen (Etxezarreta, Arrillaga eta Soto, 2020). Bestetik, 2021eko abenduan artikulua honek egileetako batek EHU⁶ defendaturiko doktorego tesiaren⁶ emaitza partzialak dira jarraian aurkeztuko ditugun batzuk. Doktorego tesi honetan, ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu baten inguruan hausnartzen da, non ikerketa enpirikoaren zati batean EAEko garapen agentzien eta ESSko eragileen arteko harremanetan sakontzen den eta garapen agentzien eskualde-estrategietan ESSa txertatzeko aukerari buruz ere galdetzen den.

Metodologiaren aldetik, GEZKIk burututako txostena modu parte-hartzailean burutu zen. ESSko eragileak eurek izan baitziren kasuak identifikatu zituztenak. Ondoren, kasu bakoitza sakoneko elkarrizketa erdi egituratuaren bitartez dokumentatu ostean, kontraste saio bat burutu zen Donostian *focus group* izaera hartu zuena, non garapen agentzietako ordezkariak eta ESSko sare ordezkari guztietako pertsonak parte-hartu

⁶ Tesiaren izenburua «Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako tokiko garapena: Euskal Autonomia Erkidegoaren kasu azterketa» da eta GEZKI institutuaren barnean burutu eta irakurri zen. Hemen eskuragarri: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/55309/TESIS_PABLO_ARRILLAGA_MARQUEZ.pdf?sequence=1&isAllowed=y

zuten. Doktorego tesiak bere aldetik ere bi fase izan zituen. Lehenik, inkesta bana igorri zitzairen Garapen-en elkartuta dauden garapen agentziei. 34 garapen agentzietatik 26-k erantzun zioten galdera itxien bidezko inkesta honi. Inkestaren helburua, garapen agentziek ESSarekiko duten ezagutza eta jarrera ezagutzea izan zen. Bigarren fase batean, sakoneko 14 elkarrizketa erdi egituratu burutu ziren: EAeko 6 garapen agentzietako ordezkari, EAEn jarduten duten ESSko 5 sareetako langile eta 3 unibertsitateko aditu elkarrizketatu ziren guztira. Kasu honetan, gaian aurreratuen dauden eragileak identifikatu ziren elkarrizketetarako eta helburu nagusia EAEn ESSan oinarritutako tokiko garapen ereduak garatzeko aukera ote dagoen aztertzea izan zen.

Inkestek biztanleria baten ezaugarri orokorrak ezagutzea ahalbidetzen du (Quispe, 2013); kasu honetan, EAeko garapen agentziak. Hala ere, inkesten sakontasun gabezia, zurruntasuna eta ikerketaren izaera nagusiki kualitatiboa dela eta, aipatutako elkarrizketa erdiegituratuak ere burutu ziren; elkarrizketatuak egokitzen jotzen dituen gaietan zabaltzeko aukera izan zezan, betiere gidoiak planteatzen duen eske-ma orokorrari jarraituz. Modu honetan, elkarrizketatuak ikerketaren parte aktiboa bihurtzen dira, haientzat garrantzitsuagoak diren elementuetan arreta handiagoa jarri dezaketelako (Longhurst, 2003). Gainera, kasu azterketek esperientzia bakoitzari buruzko informazio praktikoa, zehatza eta testuingurukoa lortzen laguntzen dute (Flyvbjerg, 2006), eta, aldi berean, aztertutako kasu guztiak partekatzen dituzten elementuak antzemateko aukera ematen du (Gerriong, 2004). *Focus group*-ak giro informal samarrean garatzen dira, taldeari nahi adina ikuspegi eztabaidara gehitzen utziz (Longhurst, 2003). Horrela, ikuspegi ezberdinak barneratzeaz gain, adostasunak, desadostasunak eta ikuspegi berriak barneratu daitezke eztabaidara. Zentzu honetan, erdiegituraturatutako elkarrizketak zein *focus group*-ak tresna egokiak dira jokabideak, ikuspegiak, identitateak, iritziak, esperientziak etab. modu deskriptiboan jasotzeko (Longhurst, 2003; Brinkmann, 2014).

5. IKERKETAREN EMAITZAK

5.1. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruko pertzepzioari buruz

Orokorrean, garapen agentzietan ESSari buruz duten pertzepzioa hiru multzo nagusitan sailkatu daiteke⁷. Alde batetik, ohiko enpresek ez dituzten balioak, sozial edo etikoagoak dituzten enpresa gisa ikusten dituztenak daude. Hauek, batez ere, barne demokrazian eta aberastasunaren banaketarekin lotzen dituzte ESSko enpre-sak, eta ez dute sektore ekonomiko konkretuekin lotzen ESSa. Multzo hau ESSaren

⁷ Orokorrean, garapen agentziek ESSari buruz hitz egiterakoan, kooperatibetan, eta kasu batzuetan, laneratze enpresetan, enplegu zentro berezietan edo elkarrekin zentratu dira bereziki. Hau da, ESSak hartu ditzakeen beste forma juridikoak ez dituzte gehiegi landu euren diskurtsoetan. Metodologikoki, elkarrizketetan ESSaren inguruan galdetu da, eta beraz, elkarrizketatuen erabakia izan da, bere eskualdean existitzen den errealitatean arabera, eredu esanguratsuenak kontsideratzen dituen horietan arreta handiagoa jartzea.

enpresa-ikuspegia duten garapen agentziek osatzen dute, eta nagusiki, eskualde industrialetan kokatzen direnak lirateke.

«Guk azken batean Lea Artibai eskualdearen garapen ekonomikoaren alde egiten dugu lana ezta? Eta guk horren barruan, hori dela Ekonomia Sozial Solidarioa ere bai ulertzen dugu. Ze azken batean, gure lana da garapen ekonomikoa, baina horren azken helburua, eskualdeko biztanleen egoera edo bizi baldintzak edo bizi kalitatea hobetzea da ezta? (...) Eta hori zelan lortu? Ba batez ere, kalitatezko enplegua sortzen lagunduz, enpresak lehiakorragoak izaten lagunduz» (Elkarrizketatua 2)

Bigarren multzo batek bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzea helburu duen sektore ekonomiko bezala ulertzen dute ESSa. Kasu honetan, ESSa soilik laneratze enpresa, enplegu zentro berezi edo esku-hartze sozialera bideratzen diren kooperatibak bezalako erakundeekin lotzen dute.

«Iruditzen zait Ekonomia Sozial eta Solidarioa hain errez ez duten edo zailtasun gehien dituzten perfil edo arloei laguntzeko aukera bat izan litekeela (...). Mota honetako ekonomiak, hitzak esaten duen bezala, solidarioagoak eta demokratikoagoak dira beste motatako enpresa batzuekin alderatuko bagenu» (E1)

Azkenik, ESSa demokrazia ekonomikoarekin eta eraldaketa sozioekonomikoarekin lotzen duten ikuspegiak daude. Hauek, ESSa bestelako paradigma ekonomiko baterako tresna gisa kontsideratzen dute. Kasu honetan, ESSko erakundeen ahalmen eraldatzailea enpresaren esparrutik ateratzen dute eta komunitatean eta eraldaketa sozialerako eragiten dituzten ekarpenak azpimarratzen dituzte. Izan ere, aurreko ikuspegiak aitortzen dizkieten onurak onartzen dituzten arren, arreta handiagoa jartzen dute ekonomia kapitalistari eta garapen eredu neoliberalari eskaini diezaiokeen alternatibetan.


«Paradigma ekonomiko alternatibo bat, egungoari aurre egiteko. Eta niretzako da kontra-balantza bat orain arteko ekonomia kapitalistaren eragin nozibo guztiak geldiarazteko» (E3)

«Otra forma de hacer economía, una economía transformadora, con unos valores específicos (...). Estos valores tienen que ver con la justicia y equidad, con el empleo digno y estable, con el compromiso con el entorno y el medio ambiente, con la cooperación, trabajo en red y apoyo mutuo, con la primacía de las personas frente al capital y la gestión democrática» (E4)

Garapen agentzia guztiei igorritako inkesten emaitzetan ere hiru joera hauek antzeman daitezke. ESSak dituen helburu nagusien inguruan galdetzerakoan, garapen agentziek ekonomia demokratizatze eta eraldaketa sozioekonomikoa sustatzeko duen gaitasuna aitortzen diote gehienek. Maila apalago batean, garapen agentzien erdiak uste du ESSak bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen

laneratzeko gaitasunean jartzen duela arreta gehiena edo enpresaren arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumena bateratzen duen eredua dela.


1. grafikoa. EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN HELBURU NAGUSIA EAEko TOKIKO GARAPEN AGENTZIEN ARABERA



Iturria: Arrillaga (2021b:413).

ESSak tokiko garapenari espresuki egiten dion ekarpen nagusienari buruz galdetzerakoan, emaitzak zentzu berdina hartzen du. Aberastasunaren banaketa (garapen agentzien %77a aitortzen diote) eta ekonomiaren demokratizazioa (%73) nagusitzen dira, enplegua (%9), ekintzailletza (%14) edo enpresa sareen sorkuntzaren gaintetik (%0).


2. grafikoa. EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAK TOKIKO GARAPENARI EGITEN DIZKION EKARPEN NAGUSIAK EAEko GARAPEN AGENTZIEN ARABERA



Iturria: Arrillaga (2021b:415).

Alabaina, garapen agentziek euren eskualdeetan antzematen dituzten arazo sozioekonomikoei erreparatzen badiegu, ezberdintasun bat aurkitzen dugu ESSari aitortzen dizkioten helburuekin. Izan ere, hurrengo grafikoan ikusi daitekeen moduan, garapen agentzien irudirako eskualdeetako arazo nagusienak enpleguarekin (desenplegua eta lanaren kalitatea eta lan baldintzak) eta tokiko merkataritzarekin zer ikusia daukate.

3. grafikoa. EAEko ESKUALDEETAKO ARAZO SOZIOEKONOMIKO NAGUSIENAK GARAPEN AGENTZIEN ARABERA



Iturria: Arrillaga (2021b:411)

Datu hauek ikusita, eta garapen agentzien lan ildo nagusienak eta eskaintzen dituzten zerbitzu nagusienak enplegua sortzera, egitura produktiboa sendotzera eta enpresen lehiakortasuna sustatzera bideratzen direla jakinik, aipatutako ezberdintasuna nabarmendu daiteke.

Ondorioz, garapen agentziek duten ESSarekiko pertzepzioari dagokionez, aurkitutako emaitza nagusia da ez dutela guztiz bat egiten garapen agentziek euren eskualdeetan antzematen dituzten arazo nagusienak eta ESSari aitortzen dizkioten ekarpenak. Hau da, garapen agentzien arabera, ESSaren ekarpen nagusiek ekonomiaren demokratizazioarekin, aberastasunaren banaketarekin eta eraldaketa sozioekonomikoarekin zer ikusia dute, eta ez hainbeste enplegua sortzearekin, enpresen sareak sortzearekin edo lehiakortasunarekin. Eta beraz, hau ez dator bat garapen agentziek aurre egin nahi dieten arazo nagusiekin: desenplegua, enpleguaren kalitatea, tokiko merkataritzaren dinamizazioa eta enpresa lehiakortasuna.

Alabaina, ezaguna da, eta ikertua dago (Bakaikoa *et al.*, 2004; Bengoetxea, 2016; OVES/GEEB, 2017 eta 2020; Eusko Jaurlaritza, 2022...), ESSak desenpleguari, lanaren kalitateari, jarduera ekonomikoaren dinamizazioari, lehiakortasunari, berrikuntzari eta garapen ekonomikoan eragiten duten beste elementuei egin diezaiekeen ekarpena, eta beraz, pentsa genezake arazo nagusia ez dela hainbeste ESSaren gaitasun eza (enplegua sortu edo mantentzeko, ekonomia dinamizatzeko edo lehiakortasunerako), baizik eta ezaugarri hauek jendarteratzeko duen ahalmena apala. Hau da, ESSak jendartean orohar eta erakunde publikoetan partikularki duen eza-gutza maila eskasarekin eta garatutako harreman moduen ahultasunarekin lotu behar genuke pertzepzio mugatu hau.

Hemen, bi salbuespen nagusi aurkitu daitezke: Debagoiena 2030 egitasmoa eta Azaro Fundazioa⁸. Debagoiena 2030 eta Azaro Fundazioa Garapen-en bilduta ez dauden arren, garapen agentzia gisa kontsideratu ziren tokiko garapenaren eragile dinamizatzaileak direlako euren eskualdeetan. Hots, garapen agentzia baten papera betetzen dute, nahiz eta jabego egituraren aldetik bulkada komunitario eta kooperatibo batetik sortuak diren, eta ez, beste garapen agentziak bezala, ekimen publikoaren bitartez⁹. Kasu hauetan ESSaren potentziala azpimarratzen zen lurralde lehiakortasuna sustatzeko eta enplegua sortzeko.

Azaro Fundazioaren kasuan:

«Kooperatiba hauek oso arraigo handia daukate gure eskualdeaz, eta presente daukate garrantzitsuak direla eskualde honen lehiakortasunerako, eskualde honetako bizi baldintzak hobetzeko, eskualde honen garapenerako... Eta orduan lortu dugu enpresa industrial kooperatiba hauek elkarregaz lanean jartzea, ez bakoitza bere negozioko aktibitateak hobetzeko baizik eta eskualdeko hobekuntzarako» (E2)

Eta Debagoiena 2030 egitasmoaren arabera, zeinek Arrasateko kooperatibismotik asko edaten baitu, ESSaren ezaugarri nagusia da enplegua sortzeko duen gaitasuna.

⁸ Elkarriketa egin zenean oraindik Azaro Fundazioa zena, gaur egun Leartibai Fundazioan barneratu da, Lea Artibaiko garapen agentziarekin eta eskualdeko beste eragile sozioekonomikoekin batera.


⁹ Artikulua sinatzen dugun egileok badakigu bi eragile hauek ez direla zehazki garapen agentziak, edo ez, behintzat, beste eskualdeetakoak bezalakoak. Egia da, Azaro Fundazioaren kasuan, Leartibai Fundazioa sortu zenetik Garapenen elkartu dela beste garapen agentziekin batera. Alabaina, bere jatorria bulkada kooperatibo bati zor dio eta ez ekimen publikoari, eta beraz, ohiko garapen agentziek ez dituzten motibazio eta eginkizun batzuk ere dituela. Debagoiena 2030ren kasuan aldiz, Debagoieneko komunitateak (Arrasateko koooperatibismoaren eta eskualdeko udal batzuen babesarekin) bultzatutako egitasmoa da, eskualdean identifikatu dituzten erronkei erantzutea ahalbidetuko duten proiektu kooperatibo-komunitarioak sustatzeko asmoa duena. Hala ere, Debagoienan existitzen da beste garapen agentzia bat, garapen agentzien ohiko funtzioez arduratzen dena. Dena den, euren eskualdeetako garapen prozesuaren dinamizazioan duten paperagatik eta ESSarekiko duten hurbiltasunagatik, ikerketa honetan eskualde garapenerako eragile nagusi gisa kontsideratu ditugu garapen agentziekin batera. Beti ere beraien bereizitasunak errespetatuz.

«Lanaren burujabetzak daukan zentralitatea. (...). Mondragonen ulertzen da lan-bazkideak zentralitatea badaukala proiektu kooperatibo batean. (...). Langileak dira demokrazia kooperatibo horren subjektu nagusiak. (...). Hasiarik oso garbi izan zuten Mondragoneko kooperatibismoan gizartearen gehiengora iristeko bokazio hori edo apustu hori, eta hor jartzea esfortzuak, ez? (...) Gizartearen gehiengoarentzat aukerak sortu, pragmatismo handiarekin» (E6)

5.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioko eragileen eta garapen agentzien harremani buruz

Eguneroko harreman gehienak tokiko zein eragileekin garatzen dituzten galdezterakoan, garapen agentziek enpresak eta formakuntza zentroak nabarmendu dituzte. Aldiz, lurraldeko talde kooperatiboak, GKEak eta sindikatuak izan dira harreman gutxien garatu dituzten eragileak.

4. grafikoa. GARAPEN AGENTZIEN HARREMANA TOKIKO ERAGILEEKIN




Iturria: Arrillaga (2021:413).

Kooperatibak edo lan-sozietateak, banaka hartuta, «enpresak» kategoriaren barnean sartu daitezkeen arren, oso adierazgarria da gure ikerketarako «lurraldeko talde kooperatiboak» edo «GKEak» jaso zuten emaitza apala.

Aurrekoarekin lotuta, baina ikuspegia EAE mailan jarduten duten ESSko sareetara zabalduta, garapen agentziekin harreman gehien garatu duen sarea ASLE da, Arrasateko talde kooperatibo jarraian duela. Bi sare hauek emaitza onargarria jaso

duten arren (garapen agentzien %65arekin eta %55arekin harremanak garatu dituzte), beste sare guztiak nahiko emaitza eskasak lortu dituzte.

5. grafikoa. **GARAPEN AGENTZIEN HARREMANA EAE MAILAKO EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOKO SAREEKIN**



Iturria: Arrillaga (2021:414).

Areago, garapen agentziek ESSko eragileekin garatu dituzten harremanen «kalitateari» begiratzen badiogu gehienek ez dute harremanik garatu edo oso harreman eskasak eta puntualak landu dituzte. Aipatzekoa da bestalde, garapen agentzien %24ak lankidetzaz jarraitua burutzen dutela diotela.

2. taula. **GARAPEN AGENTZIEN HARREMAN MOTA EAE MAILAKO EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOKO SAREEKIN**

Harreman motak	Garapen agentzien %a
Ez dituzue harremanak garatu	28%
Noizean behin kontaktatu duzue	8%
Ezagutzen zarete	4%
Lankidetzaz puntualak burutu dituzue	28%
Epe luzera lan egin duzue	8%
Lankidetzaz jarraitua burutzen duzue	24%

Iturria: Egileek egina, Arrillaga (2021)-tik abiatuta.

Diskurtsoak aztertuta ere harreman eskasa nabaria da. ESSko eragile eta aditu ezberdinek ez dakite zehazki zein den garapen agentzien betekizuna eta beste batzuk garapen agentzien eginkizuna desitxuratu egin dela diote. Hauen esanetan, garapen prozesua artikulatuetik eta hori dinamizatuetik, euren lanerako esparruak murriztuz joan dira eta orain diru-laguntzak ematera mugatzen den administrazio publikoaren beste hanka bat izatera igaro dira.

Beste aldetik, ESSko sare batzuek aitortzen dutenez, eskualde edo udal mailan iragazkortasun txikikoak dira, beraien jarduna EAE mailan burutzen dutelako gehien. Nahiz eta azkenaldian lurraldeetara gehiago hurbiltzeko joera bat antzeman daitekeen.

«No tenemos la capacidad de estar en todas las comarcas directamente (...)»
(E7)

«Los proyectos que hacemos desde EGES con Garapen o con el desarrollo local son muy novedosos para nosotros. Al final EHLABE que es una entidad tan supraterritorial, bajar a esta colaboración con las agencias de desarrollo local... pues también es importante y cambiamos un poco el punto de vista y el objetivo, ¿no? O sea, no solo centrarnos en lo supra sino empezar de abajo de lo más local y ahí también pueden salir proyectos bonitos» (E11)

Beraz, orokorrean elkarrizketatu gehienek aitortzen dute ez dagoela ESSaren eta garapen agentzien arteko harreman jarraiturik. Eta elkarlana eman denean, orokorrean, harreman bilateralak izan direla ESSko sare bakar baten eta garapen agentzia bakar baten artean. Zentzu honetan, dena den, badira ESSa eta tokiko garapena modu esanguratsuan uztartzen duten garapen agentziak eta harreman jarraituak eta kualitatiboki garrantzitsuak burutu dituztenak. Hauek Leartibai Fundazioa, Deba-goiena 2030 eta Beterri-Buruntzako garapen agentziak dira (hurrengo atalean sakonduko da gehiago).

Begirada orokorrago batetik, egia da azkenengo urteetan garapen agentzietatik ESSa sustatzeko politika publikoak areagotuz joan direla eta esperientzia esanguratsuak garatu direla eskualde ezberdinetan (Soto *et al.*, 2021). Hala ere, kasu gehienetan esperientzia isolatuak izan dira, hots, ez dira izan ESSaren inguruan eraikitako eskualde estrategia baten emaitza, baizik eta elkarlan puntual edo espontaneo bate-na (aipatutako hiru kasuetan izan ezik, non ESSa estrategikotzat hartzen den). Hala ere, ildo honetan ematen diren praktika egokiak geroz eta gehiago dira, eta beraz, joera positiboa sumatu daiteke etorkizunerako. Gainera, eragileen arteko saretze dinamikak ere burutzen ari dira azkenaldian eta pixkanaka bi mundu hauen elkarrekiko interesa eta ezagupen maila handituz doa.

Ondorioz, esan daiteke ESSaren eta garapen agentzien artean garatutako harremanak hobetzeko eta sendotzeko tarte handia dutela. Alde batetik ESSko sareak eskualde eta udaletan oso iragazkortasun txikia dutelako (lan gehiena EAE mailan egiten dute) eta bestetik garapen agentziek ESSaren inguruan duten ezagutza maila oso txikia delako.

Beraz, joera positiboa antzeman daitekeen arren, azkenengo urteetan esperientzia interesgarriak sortu dituzten elkarlanerako espazioak areagotu diren heinean, oraindik gehienetan harreman bilateralak izan dira (ESSko sare bakar baten eta garapen agentzia bakar baten artekoak) eta hauek ez dira eman elkarlanerako marko jarraitu batean, baizik eta elkarlan puntual baten emaitza izan dira. Honek guztiak dena den, bi mundu hauen elkarrekiko interesa piztu du neurri batean.

5.3. Ekonomia Sozial eta Solidarioa garapen estrategietan txertatzeari buruz

Aztertutako emaitzetan ikusi daiteke ESSa eskualdeetako garapen estrategietan txertatzeko orduan gabezi handiak egon direla orain arte. Hala ere, azkenaldian somatu daitekeen joera positiboaren adierazlea izan daiteke garapen agentziek ESSa sustatzeko agertzen duten prestutasuna. Horri buruz garapen agentziei galdetzerakoan, logikoa denez, ESSa sustatzeko ezagutzen dituzten politika publikoak aurrera eramateko prest daudenak baino gehiago direla antzeman da. Ezagutzen dituzten politika publikoen kopurua ere ez da oso altua, nahiz eta emaitza desberdinak aurkitu daitezkeen politika batetik bestera. Izan ere, ESSa sustatzeko aurkitzen dituzten arazo nagusien artean, garapen agentzien erdiak ezagutza falta adierazi dute. Hala islatuta gelditzen da ere ezagutza maila neurtzen duen galderan, garapen agentzia gehienek 5 puntuko eskalan, 1 eta 3 artean kokatu baitziren gehienik. Egoera hau ere jaso zen elkarrizketetan:

«Garapen agentzietako teknikariek 30 urte daramatzate berdina egiten (...) ez dakite kooperatiba bat ere zer den» (B3)

Eta beraz, ESSko sareak kexu dira ez delako eredu kooperatiboa sustatzen garapen agentzietatik.

«Lo que hace falta es que cuando llegue un promotor, pues decirle (...) tenéis también el modelo cooperativo y tenéis también quien os lo monta desde cero. Si le convence al promotor el modelo cooperativo (...) pues estamos nosotros para ayudarlo. (...). Estos técnicos tienen que asumir es nuevo rol, en el sentido de que 'oye tenemos otra fórmula para prescribir' (...), y es otra fórmula dentro del abanico empresarial, y también al promotor en función del proyecto se le debe de orientar pues si tiene ese contenido social, si quiere compartir desde la gestión hasta los resultados pasando por el capital y la propiedad etc. Si el promotor está en esa tesis pues ese agente local le debería dar la opción de la cooperativa» (E7)

Garapen agentzietatik ES sustatzeko ohitura falta lotzen da ESSa sustatzeko ideia faltarekin (garapen agentzien %14a) edo ideia horiek praktikan jartzeko zailtasunekin (%27a), baliabide (%50a) eta pertsonal faltarekin (%50a), finantzaziorako zailtasunak direla medio (%36a) eta zailtasun juridiko edo burokratikoak (%27a) aurkitzen dituztelako.

ESSa eskualde-estrategian txertatzeari dagokionez, soilik 4 garapen agentzia prest agertzen dira ESSa sustatzea helburu duen plan estrategikoa aurrera eramateko eta beste 7 garapen agentzia ESSarekin lankidetzan harremanak garatzeko prest daude. Eskualde-estrategian ESSa barneratzeko moduan ere ezberdintasun nabariak aurkitu daitezke. Garapen agentzien erdiak uste du ESSa zeharka landu daitekeela, hots, esparru guztietan aplikatu daitekeen tresna bezala ikusten du (enpleguaren esparruan, ekintzailatza esparruan, merkataritza esparruan, etxebizitza esparruan, esparru kulturealean, energiaren esparrua, ingurumenaren esparruan etab.).

«La Economía Social y Solidaria es transversal, no es un sector, sino que es un cómo ¿no? Es una manera diferente de hacer economía» (E4)

«La Economía Social no es un departamento estanco; es una sensibilidad, es una forma de entender la forma de hacer empresa. Y que creo que es importante que, dentro de una agencia, todas y cada una de las personas tengan conocimiento y tengan formación en lo que es la Economía Social. Porque las oportunidades para la Economía Social pueden surgir en el ámbito del medio ambiente, en el ámbito del emprendimiento, en el ámbito de la digitalización, o en el tema de competitividad empresarial. Pueden surgir en cualquier ámbito» (E10)

«Niretzat argi eta garbi izan behar dela transbertsala. (...) Nik uste dut Ekonomia Soziala ez dela helburua bere horretan, sino que dela bitarteko bat, ez? Eta horregatik, egin behar dena da garapen agentzien esparru ezberdinetan hau transbertsalizatu, ez?» (E3)

Alabaina, kontrako ikuspegi batetik, aurreko argumentuak onartzen diren arren eta helburu gisa ESSak garapen agentzien ildo guztiak eta egiteko erak ziprztindu behar litzuzkeela kontsideratzen den arren, uste da helburu orokor hori konbinatu beharko litzatekeela ESSa sustatzeko lan ildo espezifikoeekin; behintzat hasiera batean. Izan ere, ESSaren gaur egungo errealitatea dela eta, ezinbestekotzat jotzen dute ildo espezifikoak sortzea, hauek ESSa indartzeko, ikustarazteko eta baliabide konkretuak esleitzeko baliagarriak diren heinean.

«Porque muchas veces lo transversal, que en concepto está muy bien, desaparece cuando vienen cosas urgentes. Y casi siempre hay algo urgente. (...) Entonces lo que es interesante es visualizarlo y ponerle nombre, ponerle un responsable y ponerle presupuesto para que tenga consistencia. Luego ya veremos que aplicaciones se pueden dar en función de la localidad, en función de quien lidera eso y en función de la respuesta del territorio, ¿no?» (E5)

Eztabaida hauetaz aparte, gaur egungo errealitateak erakusten du hiru eskualdeetan izan ezik, ezin dela esan ESSa EAeko eskualde-estrategietan txertatuta dagoenik. Aipatu den bezala, geroz eta elkarren arteko esperientzia gehiago garatzen ari dira, baina hauek oraindik ez dira, momentuz, horren adierazgarriak eta jarraituak.

ESSa eskualde-estrategian txertatuta dagoela kontsideratu daitekeen hiru eskualdeen kasuan, irakaspen desberdinak atera daitezke. Izan ere, kasu bakoitzean hasierako bulkadak jatorri ezberdina izan du. Lea-Artibairen kasuan, eskualdeko kooperatiba handien bultzadaz abiatu zen; Beterri-Buruntzaren kasuan, mankomunitateak sortutako garapen agentzia publikoaren ekimenez abiatu zen; eta Debagoienan, eskualdeko polo komunitarioa (Arrasateko kooperatibismoari lotuta zegoena) izan da Deabagoiena 2030 egitasmoa martxan jarri duena.

Zehazki, Lea-Artibain ESSko ekosistema bat sortu da non proiektu kooperatiiboak sustatzen diren orientazioa, aholkularitza eta laguntza finantzarioa eskainiz. Bertan ESSak eskualdearen gobernantza sisteman zentraltasuna lortu du eta harreman ezberdinak garatu ditu gobernantza ekonomikoan eragiten duten tokiko beste eragileekin. Beterri-Buruntzan, aldiz, ESSa zeharka erabiltzen dute esku-hartze esparru ezberdinetan (enpresa, ekintzailtza, inklusio arloetan etab.) sortzen diren beharrei erantzuteko ESSari lehentasuna emanez. Gainera, azkenaldian, Hernaniko Udalaren laguntzarekin sektore estrategikoen gaineko burujabetzak berreskuratzeko egitasmoa abiatu dute, non ESSko egituraketaren bitartez elikadura, energia, etxebizitza, zaintza, telekomunikazioak etab. bezalako sektore kritikoetan eragiteko eta egitasmo kolektibo eta demokratikoak sortzeko hautua egin den. Azkenik, Debagoienan eskualdearen diagnostiko parte-hartzaile baten ostean antzemandako eskualde-erronkei erantzuteko, egitasmo sozialki berritzaileak martxan jartzeko asmoa daukate tokiko eragile ezberdinen arteko lankidetzaren bitartez.

Dena den ez da artikulu honen asmoa hauetan gehiegi sakontzea, helburua EAEko egoeraren argazki orokorra eskaintzea baita, baina argi gelditzen dena da hiru esperientzia hauek ESSa txertatzeko hiru bide ezberdin garatu dituztela, neurri handi batean, eskualde bakoitzaren egitura instituzional eta marko arautzaile espezifikoen eraginez. Beraz, esperientzia arrakastatsu hauen bideak aztertuz, zentzu honetan sakondu nahi duten beste eskualde batzuk badaukate non begiratu.

6. ONDORIOAK, ERRONKAK ETA AGERTOKI DESIRAGARRIAK

Ikerketa honetatik atera dezakegun ondorio nagusia da orain arte, orokorrean, ez dela ESSa EAEko eskualdeetako garapen estrategietan modu egonkorrean txertatu. Egoera hau islatuta ikusten da ere tokiko garapenaren inguruko bibliografian sakontzen badugu. Izan ere, honen inguruko nazioarteko erreferentziatzko adituek ere ez dute gaia sakonean jorratu orain arte.

Gure testuinguruan hala ere, ESSaren proposamena beste loraldi bat bizitzen ari da Euskal Herriko 5. olatu kooperatiiboarekin eta hau sustatzea helburu duten eskualde-estrategiak eta tokiko politika publikoak, nahiz eta gutxi izan, geroz eta gehiago dira (horren adibide direlarik maila ezberdinetako agintaritzek ESSa sustatzeko burututako planak edo Etxezarreta *et al.*-en (2020) jasotako politika publikoen inguruko praktika egokiak etab.). Horrenbestez, pentsatu daiteke pixkanaka ESSa

eta tokiko garapenerako eragileek hurbilduz joango direla. Azken finean ESSa eskualdeetako eragile sozioekonomiko garrantzitsua da eta tokiko garapenak etorkizunean izango dituen erronkei erantzuteko tresna egokia izan daiteke.

Alabaina, ikusi den moduan, ESSak oraindik ez du lortu bere potentzialtasun guztia erakustea garapen agentzietei; horregatik ez dute guztiz bat egiten ESSari aitortzen dizkieten onurak eta antzemandako tokiko behar nagusiak. Hau da, ESSak tokiko garapenaren ohiko helburuei eta etorkizun hurbilean sortu daitezken erronkei erantzuteko gai dela erakutsi beharko du. Zentzu honetan, asko dira ESSak eskualde-estrategiei egin diezaiokkeen ekarpen edo onurak. Azaldu denez, onura hauek ESSaren errotzeari buruzkoak dira (erabaki zentroak, langileak eta aberastasuna lokalak dira), sortutako aberastasunaren banaketaren ingurukoak, jarduera ekonomikoaren baliazarritasun sozialaren ingurukoak, lanaren sorkuntzaren, kalitatearen eta erresilientzia handiagoaren ingurukoak, lurraldean sortzen dituen kanpo-eragin sozialen ingurukoak (kohesio soziala, lankidetzaren giroa etab.) edo garapen iraunkorrako baten ingurukoak, besteak beste. Gainera ESSak egituratzeko forma ezberdinak har ditzake behar ezberdinei hobeto egokitzeko (Lan-, kontsumo-, finantza-, hezkuntza-, etxebizitza-kooperatibak, kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarteak, jarduera ekonomikodun elkarteak, laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak, parte hartze publikodun kooperatiba integralak, fundazioak etab.).

ESSaren onuren erakusketa horretan, garapen agentzietako teknikarien formakuntza ezinbestekoa da; ezin baita babestu ezagutzen ez dena. Izan ere, ezagutza maila oso baxua antzeman da garapen agentzietako teknikarien artean oro har. Azkenaldian, ESSko sareen eta Garapen elkartearen arteko harreman estuago bat nabari da, eta beraz, hortik bideratu daitezke garapen agentzietarako formakuntza saioak. Hala ere, ESSko sareen eta Garapen-en arteko harreman jarraituagoez gain, ESSak iragazkortasun lokal handiagoa beharrezkoa du bere ezaugarrien inguruko ezagutza zabaltzeko. Hau da, ESSak nolabaiteko antolakuntzaren bitartez heldu behar da esparru lokalera. Zentzu horretan Kataluniako ESSaren aldeko udalerrien sarea (*Xarxa de Municipis per l'Economia Social i Solidària*) izan daiteke eredu.

Era berean, ESSaren lurraldeetan duen presentzia handitzeko, subjektu kooperatibo lurralderatuen proposamen berritzailea interesgarria izan daiteke (ikusi, Arrillaga, 2021a:51-53). Subjektu kooperatiboak ESSaren adierazpen lurralderatuak dira, hots, lurraldean ESSaren ordezkagarri gisa funtzionatzen duten eragile kooperatibo eta komunitarioen bilguneak dira. ESSko erakundeek, sindikatuek, mugimendu sozialek, tokiko administrazioek edo bestelako eragile komunitarioek osatutako lurralde-agentzietak dira, eta, elkarren arteko lankidetzaren bitartez, ESSa eta haren balioak lurraldera hurbiltzen saiatzen dira. Haien eginkizun nagusien artean formakuntza kooperatiboa, behar sozioekonomikoen identifikazioa, behar horiei erantzuteko ESSko proiektuen proposamena eta sustatzea edo ESSko sare lurralderatuak sortzea egongo lirake, besteak beste. Azken finean, lurralde bakoitzean ESSaren erreferentziatzeko eragile bat izango lirake eta komunitateari irekitako gune bat, ESSaren in-

guruan ikasteko, baliabideak eta esperientziak partekatzeko, lurraldearen plangintza estrategikoa egiteko, etab.

Gaur egun, Lea-Artibaiko Azaro Fundazioaz eta Debagoiena 2030 egitasmoaz gain, subjektu kooperatiboak eraikitzen doaz beste eskualde batzuetan (Goierrri, Zumaiia...) batez ere Ekonomia Sozial Eraldatzailearen sarearen (Olatukoop) ekimezez. Eta nazioartean bada ere nondik ikasi; adibidez, frantziar Estatuko Lankidetzta Ekonomikoko Lurralde Poloak (*Pôles territoriaux de coopération économique*, PTCE) (Itçaina, 2020) edo Kataluniako *Ateneu Cooperatius*-ak.¹⁰

Horrelako eragile batek gainera, presentzia handiagoa ematen dio ESSari tokiko gobernantza ekonomikoan. Orokorrean, eskualde mailan diseinatzeko diren plan estrategikoez zehazten dituzte zeintzuk izango diren hurrengo urteetan jarraitu beharreko lan ildo estrategikoak. Plan estrategikoak eskualdearen gobernantza ekonomikoan parte-hartzen duten eragileek zehaztu ohi dituzte (goragoko eskaletatik etor daitezkeen direktibei jarraikita, adibidez Aldundietatik, Eusko Jaurlaritzatik edo Europatik). Orokorrean ESSa ez da eskualdeetako gobernantza ekonomikoaren parte, orain arte lurralde mailan oso atomizaturik egon delako (Euskal ESSa oso sare gutxi duen arren, esan bezala, sare hauek ez dute iragazkortasunik tokiko esparruan). Eta beraz, ESSko erakunde bakar edo gutxi batzuek oso zaila daukate modu isolatuan eskualde baten gobernantza ekonomikoan parte-hartzea. Horregatik subjektu kooperatiboak lagungarriak izan daitezke lurralde gobernantza sistemetan lekua irekitzen joateko eta eskualdeetako plan estrategikoen diseinuan ESSaren ekarpen eta eskakizunak presente egoteko.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALBURQUERQUE, F. (2003): «Teoría y práctica del enfoque del desarrollo local», *Instituto de Economía y Geografía, Consejo Superior de Investigaciones Científicas*, Madrid, 1-24.
- (2004): *El enfoque del Desarrollo Económico Local*, (Vol. 1), Organización Internacional del Trabajo (OIT), Buenos Aires.
- AMIN, A. (1998): «Una perspectiva institucionalista sobre el desarrollo económico regional», *Ekonomiaz: Revista vasca de Economía*, (41): 68-89.
- ARRILLAGA, P. (2021a): «La propuesta del desarrollo local transformador. Aportaciones desde la Economía Social y Solidaria», *Hegoa Lan Koadernoak*, 88: 1-64.
- (2021b): *Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako tokiko garapena: Euskal Autonomia Erkidegoaren kasu azterketa*, Doktore tesia, UPV/EHU-GEZKI institutua, Donostia.
- BAKAIKOA, B.; ERRASTI, A.; BEGIRISTAIN, A.; GOIKOETXEA, G. (2004): «Redes e innovación cooperativa», *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, 49: 263-294.
- BENGOETXEA, A. (2016): «Enplegua euskal Gizarte Ekonomian 2009-2013 artean», en BRETOS, I.; PÉREZ DE URALDE, J.M. (Eds.): *Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa. 2009 eta 2013 arteko bilakaera sozioekonomikoa*, OVES/GEEB Observatorio Vasco de

¹⁰ Ikusi: <https://ekonomiasocial.coop/ateneus-cooperatius>

Economía Social /Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia: 35-40, Donostia.

- BENKO, G.; LIPIETZ, A. (Eds.) (2000): *La richesse des régions: la nouvelle géographie socioéconomique*, Presses Universitaires Françaises, Paris.
- BOUCHARD, M.; LÉVESQUE, B. (2010): «Économie sociale et innovation. L'approche de la régulation, au coeur de la construction québécoise de l'économie sociale», *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - n° ET1103.
- BRENNER, N. (1999): «Globalisation as reterritorialization: the re-scaling of urban governance in the European Union», *Urban studies*, 36 (3): 431-451
- (2004): *New State Spaces Urban Governance and the Rescaling of Statehood*, Oxford University Press.
- BRINKMANN, S. (2014): «Unstructured and semi-structured interviewing», En LEAVY, P. (ed.): *The Oxford handbook of qualitative research*, Oxford University Press: 277-299.
- CORAGGIO, J.L. (2004): *La gente o el capital: desarrollo local y economía del trabajo*, Editorial Abya Yala.
- ESTENSORO, M.; ZURBANO, M. (2010): «Innovación social en la gobernanza territorial: Innobasque y las redes comarcales de la Comunidad Autónoma de Euskadi», *Ekonomiaz: Revista vasca de Economía*, 74 (2): 131-159.
- ETXEZARRETA, E.; ARRILLAGA, P.; SOTO, A. (2020): *Promoviendo experiencias de economía social desde lo local; Análisis de buenas prácticas*, EGES Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea. Berreskuratuta: <https://www.gezki.eu/pdfs/21799f65d8.pdf>
- EUSKO JAURLARITZA (2022): 2020ko Euskal Gizarte-Ekonomiaren Estatistika. Berreskuratuta: <https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2022/2020ko-euskal-gizarte-ekonomiaren-estatistikaren-txostena/web01-s2lanju/eu/>
- FAVREAU, L. (1997): «Desarrollo económico comunitario y economía social: el ejemplo canadiense», *Revista de debate sobre la economía pública, social y cooperativa*, (25): 43-62.
- FLYVBJERG, B. (2006): «Five misunderstandings about case-study research», *Qualitative inquiry*, 12 (2): 219-245.
- GAINZA, X. (2008): *Instituciones y territorio: Las Agencias de Desarrollo Local vascas en la promoción económica local*, Tesis doctoral, UPV/EHU, Bilbao.
- GAINZA, X.; UNCETA, K. (2011): «Los factores socio-territoriales y su incidencia en las estrategias locales de desarrollo: El caso de las agencias de desarrollo local en el País Vasco», *Revista de Estudios Regionales*, 92: 113-143.
- GARAPEN, GARAPEN AGENTZIAN EUSKAL ELKARTEA (2020): *2019 Memoria*. Berreskuratuta: https://www.garapen.net/wp-content/uploads/2021/10/GARAPEN_Infografia_2019_ES.pdf
- GARCÍA, A. (1997): «Cooperativismo y desarrollo rural», *REVESCO revista de estudios cooperativos*, (63), 63-78.
- GARCÍA-JANÉ, J.; VÍA, J.; XIRINACS, L. (2006): *La dimensión cooperativa: economía solidaria y transformación social*, Icaria Editorial, Barcelona.
- GARMENDIA, J.M. (2021): *Tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eraikitze marko kontzeptuala, arkitektura eta metodologia*, UEMA: Udallerri Euskaldunen Mankomunitatea, Berreskuratuta: https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2021/07/Tokiko-garapen-ekonomikorako-estrategiak_Joseba-Garmendia-2021.pdf
- GERRING, J. (2004): «What is a case study and what is it good for?», *American political science review*, 98 (2): 341-354.
- GÓMEZ, J.M.; FERNÁNDEZ, J. (2008): «La economía social en el desarrollo económico regional un análisis del subsector de mercado en Castilla y León», *Estudios de Economía Aplicada*, 26(1): 253-274.
- GURIDI, L.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2014): *La dimensión económica del desarrollo humano local: la economía social solidaria*, Instituto Hegoa, UPV/EHU.
- IRASUEGI, B. (2019): «Bizitza eta lurralde kooperatiboak 2034. urtean. Aurrerapen bat pertsona eta enpresa kooperatibo osatzeko asmoz», *Jakin: Joxe Azurmendi Kongresua*, Donostia.
- ITÇAINA, X. (2020): «Polo territorial de cooperación económica (Sud-Aquitaine) (Seignaux, Nouvelle-Aquitaine)», en PUIG, C.; GURIDI, L. (coords.): *El papel de los territorios en el emprendizaje social en Economía Social y Solidaria*, Instituto Hegoa, UPV/EHU, 40-46.

- JUSTE, J.J.; GÓMEZ, J.M.; FERNÁNDEZ, J. (2011): «Economía social y desarrollo local/rural. Un análisis de sus sinergias», *Estudios de Economía Aplicada*, 29 (1): 189-221.
- KLEIN, J.L.; FONTAN, J.M.; HARRISSON, D.; LÉVESQUE, B. (2012): «La innovación social como factor de la transformación social: el caso del modelo quebequense», *La economía social: un paradigma más actual que nunca*: 137-180.
- LARREA, M. (2003): «Clusters y territorio retos del desarrollo local en la Comunidad Autónoma del País Vasco», *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, 53: 138- 59.
- LAVILLE, J.L. (2009): «Definiciones e instituciones de la economía», en CORAGGIO, J. L. (ed.): ¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo, Buenos Aires, CICCUS: 47-69.
- LONGHURST, R. (2003): «Semi-structured interviews and focus groups», *Key methods in geography*, 3 (2): 143-156.
- MONZÓN, J.L. (2006): «Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector», *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (56): 9-24.
- MOZAS, A; BERNAL, E. (2006): «Desarrollo territorial y economía social», *CIRIEC-España, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (55): 125-140.
- OVES/GEEB (2017): *Euskal Gizarte Ekonomiaren egoera txostena*, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (OVES/GEEB), Donostia. Berreskuratuta: http://oves-geeb.eus/app/uploads/2018/06/2017_Informe_Situacion_Vfinal_CAS.pdf
- (2020): *Dossier territorial de la economía social*, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (OVES/GEEB), Donostia. Berreskuratuta: http://oves-geeb.eus/app/uploads/2020/11/Dossier_Territorial_ES_VF.pdf
- PIKE, A.; TOMANEY, J.; RODRIGUEZ-POSE, A. (2006): *Local and regional development*, Routledge.
- PIKE, A.; RODRÍGUEZ-POSE, A.; TOMANEY, J. (2017): «Shifting horizons in local and regional development», *Regional studies*, 51 (1): 46-57.<https://doi.org/10.1080/00343404.2016.1158802>
- POLANYI, K. (1944): *La gran transformación: Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.
- QUISPE, A. (2013): *El uso de la encuesta en las ciencias sociales*, Ediciones Díaz de Santos.
- SOTO, A.; ARRILLAGA, P.; ETXEZARRETA, E. (2021): «Factores clave para el fomento de la Economía Social desde lo local», *Revista Prisma Social*, (35): 65-90.
- TOMÁS, J.A.; MONZÓN, J.L. (1998): *Libro Blanco de la economía social en la Comunidad Valenciana*, CIRIEC-España, Valencia.
- VALIENTE, L. (2019): «¿Podría estar contribuyendo el cooperativismo a fijar la población en el territorio de Andalucía?», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 97: 49-74.
- VÁZQUEZ-BARQUERO, A. (1988): *Desarrollo local. Una estrategia de creación de empleo*, Pirámide, Madrid.
- (1999): *Desarrollo, redes e innovación: lecciones sobre desarrollo endógeno*, Pirámide, Madrid.
- VILLALBA, U.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2019): «La economía social y solidaria como vía para el buen vivir», *Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo = Iberoamerican Journal of Development Studies*, 8(1): 106-136.
- VILLALBA, U.; EGIA, A.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2020): «Convergences between the Social and Solidarity Economy and Sustainable Development Goals: Case Study in the Basque Country», *Sustainability*, 12 (13): 5435.
- ZULAICA, A. (2017): «Tokiko Garapen Agentzien eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gaitasuna Tokiko Giza Garapenaren bidean: Agència de Desenvolupament del Bergueda-ren esperientzia azterga», *Revista vasca de economía social= Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, (14): 77-102.
- ZURBANO, M. (2005): «Las regiones como sujetos de la economía global. Euskadi en la gobernanza multidimensional», *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, 58: 196-231.